

## Mahai Parekidea

**Lanpostuen zerrenda:** Enpresak iazko lanpostu kopuru berdina mantenduko du. 23 plaza amortizatu dira beste haurreskoletan 23 plaza sortuz. Behin betiko kontratuak eta lep artekoak mantenduz datorren ikasturterako.

**Uztaileko haurren bajak:** Gaurko datuen arabera 1.276 hurrek baja eman dute uztaileko. Haurren bajen arabera Enpresak (**esan nahi ez dizkigun**) mugimenduak egingo ditu. Gaur eta bihar artean jakinaraziko dizkiegu bai langileei bai alde sozialari.

Stee-eilas sindikatuak Enpresaren jarrera salatu nahi du. Enpresaren lana Partzuergoa kudeatzea da eta gurea kudeaketa honen jarraipena egitea, aportazioak egitea, proposamenak bidaltzea, eta bidezkoak ez diren egoerak salatzea. Gaur Enpresak ukatu digu sindikatuoi gure lana egiteko aukera. Espero dugu, hau berriro ez gertatzea, ez uztailean, ez inoiz.

**Esleipenak:** Ekainaren 23an arratsaldean egingo da. Deialdia oraindik adostu gabe dago .

Data: 2014/06/24

